

Getxoko Udalaren
Berdintasun Zerbitzuko
Argitalpena

EMEKI

Azaroa
2013
29. Zbk

EMAKUMEEN AURKAKO
INDARKERIARI EZ
NO A LA VIOLENCIA
CONTRA LAS MUJERES



Getxo
bizi ezazu

Berdintasuna, etorkinen integratzeorako eta berdintasunerako elkartea



Berdintasuna etorkinen integratzeorako eta berdintasunerako elkarteak 2006an jarri zen martxan, talde horren parte-hartzea Getxoko udalerriko bizitza soziokulturalean sustatzeko asmoz. Haren helburu nagusia etorkinei lehen unetik orientatzea, aholkatzea eta laguntzea izan zen, "oso desorientatuta zeudelako eskolatzea, osasuna, gizarte-laguntza eta lana bezalako oinarrizko gaietan", adierazi du María Luisa Lubian elkartekideak.

Une honetan, etorkinak hartzeko eta haiei laguntzeko zeregin horrek ez du orain dela urte batzuk zuen besteko eskaera, "izan ere, gutxiago etortzen dira, eta oraingo joera irtetea da batik bat", dio Lubianek. Horregatik, BERDINTASUNA elkartearen funtsezko zeregina une honetan neska-mutil etorkinei eskola-laguntza ematea da. Ordu eta erdiko ikastaroak dira, astean bitan, eta A nahiz D ereduan ikasten dutenei zuzenduta dago. Tailerrak, ikastaroak, genero-gaiak, eta beste hainbat ekintza antolatzen dituzte baita ere.

Harremanetarako:
BERDINTASUNA
Bizkerre 14-2ºB, 48991, Getxo (BIZKAIA)
Telefonoa: 605 707 438
berdintasuna.getxo@hotmail.com

Getxoko Emakume Elkarteak

BILGUNE FEMINISTA

Elkarte Feminista
ehbfgtxo@euskalerrria.org

ENCLAVE DE CIUDADANAS POR GETXO

Plataforma Cívica por la Igualdad
Harremanetarako: Rosa Mari Comonte
Tnoa. 94 602 47 87 . 68 posta kutxa
enclavedeciudadanasporgetxo@gmail.com
enclavedeciudadanasporgetxo.blogspot.com

ESKUZ-ESKU

Prestakuntza
eta Garapenerako Emakumeen Elkarteak
Puerto Orduña kalea, 16 baxua . 48993 Getxo
Tnoa. 94 430 08 35
asociacion@eskuz.e.telefonica.net

GIZATIAR

Erromo eta Areetako Emakumeen
Gizarte eta Kultur Elkarteak
Gobelaurre parkea z/g
48930 GETXO
Tnoa. 94 655 84 35
gizatiar@hotmail.com

RODA

Kultur Elkarteak
Areetako Etorb., 10 baxua esk. 48930 Getxo
Tnoa. 94 463 18 96
asociacion_rod@telefonica.net

EMAKUMEEN AHOTSA

Etorkin eta bertako emakumeen topaketak
bultzatzen dituen elkarteak da
asociacionmujeresconvoz@gmail.com

Argitaratzen du:

Getxoko Udalaren Berdintasun Zerbitzua.

Fueros, 8. 48992 Getxo.

Tnoa.: 94 466 01 36.

e.posta: berdintasuna@getxo.net.

Web: www.getxo.net.

Erredakzioa eta Diseinua: Kahlomedia S. Coop

Lege Gordailua: BI-1788-07

Testu hauen erabilera baimentzen da, beti ere iturria aipatuz.

Azaroaren 25a emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna da. Instituzioek, emakume-taldeek, erakunde feministek eta beste eragile sozial batzuk egun hori baliatzen dugu milioika emakumek, emakume izate hutsagatik, mundu osoan bizi dituzten indarkeria-egoerak kalean salatzeke.

Azpimarratu behar dugu, berriz ere, emakumeen aurkako indarkeriaren iturburu estrukturala dela. Baina, zer baliabide daude gizon eta emakumeen arteko harremanetan berdintasunik ez izatea eta milaka gizonek bikotea edo bikote ohia erasotzea eta hiltzea legitimotzat hartzea eragiten duen gizarte-egitura matxista hori aldatzeko?

Egunotan, hedabideek indarkeria matxistari buruzko hamaika erreportaje eta albiste emango dituzte. Baina, ez al litzateke eraginkorragoa izango hedabide batzuk (askok) urte osoan ematen duten emakume-irudia hain estereotipatua eta, entzule asko dauzkaten saioetan, misoginoa eta histerikoa ez izatea? Betetzen al dira berdintasuna eta duintasuna zaintzea helburu duten kode deontologikoak?

Ez dugu ulertzen erasotzaileekin urtetan bizi diren hainbeste emakume nola dauden. Ordea, indarkeria-egoera horretatik ateratzeko pausoa ematea erabakitzen duten emakumeak seguru sentitzen al dira?, erakundeek babesten dituztela sentitzen al dute? Ba al dago autonomiarako eta ahalduntzerako bidean laguntza behar duten emakumeentzako baliabide nahikoa? Baliabide horiek eskuragarri al daude?

Beldurtu egiten gaitu indarkeria bikote gero eta gazteagoetan ikusteak, eta hezkuntza funtsezkoa dela uste dugu. Baina, nola liteke, genero-indarkeriaren aurkako lege integrala onartu eta ia 10 urtera, oraindik hezkuntza-arloko neurriak martxan jarri gabe egotea?

Horiek dira mahai gainean dauden eta indarkeria matxista errotik kentzea interesatzen zaigun agente guztiok ardatz gisa hartu behar ditugun gaietako batzuk.

Getxoko Udalak, beste behin, Beldur Barik kanpainan parte hartuko du. Kanpaina hori Berdinsareak, berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako Udalen sareak, sustatzen du. Kanpaina horren barruan, Beldur Barik lehiaketa babesteaz gain, sexu-erasoak gaitzesten dituen adierazpen instituzional bat aurkeztuko dugu Udalbatzan. Adierazpen horrek, gainera, Udala konpromiso batzuk hartzera behartzen du.

Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna dela-eta egiten diren ekitaldietan parte hartzera eta indarkeria matxistaren adierazpen guztei modu aktiboan aurka egitera animatzen zaituztegu.



(...) Jazarpena eta indarkeria betse urrats bat gehiago. Eta dena akats ikusgarri bakarra duen kolektibo batentzat: beste sexu batekin jaiotzea aurreikusi ez izana.

Amelia Valcárcel, filosofoa.

Zailtasunak eta baliabideak, indarkeria matxistatik irteteko ibilbideetan

Emakumeen aurkako indarkeria da orain bertan estatuan ematen ari den indarkeriarik larriena. Ohikoa da bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskutik tratu txarrak jasotzea, baina egoera hori oso larria izan arren, emakume gehienek denbora luzez mantentzen dituzte harreman kaltegarri horiek. Zergatik dira milaka emakume egoera horiek jasaten dituztenak?

Tratu txarraren bereizgarrietako bat da egoera oso larria izan arren emakume gehienek bikotekidearekin jarraitzen dutela denbora luzez. Erasoak maitasun-harremanekin lotuta daude, eta maitasun erromantikoaren mitotetik hautematen dira, neskei ia jaiotzen diren unetik irakatsitakoari jarraiki. “Emakumeek indarkeria matxistako harreman batean dituzten barne-hesiek zerikusia dute ikasitako zenbait mandatu eta rolekin; hala, emakumeek urteak ematen dituzte, hasteko, familia-harremana indarkeria-harreman bat dela aitortu gabe, eta behin hori aitortuta, zailtasun handiak dituzte harreman hori uzteko”, azaldu du María Naredo jende eskubideetan eta indarkeria matxistan espezializatutako jurista eta ikertzaileak. Harremanaren iraupena oso aldakorra izan daitekeen arren, 10 urtetik gorakoa izan ohi da, batez beste.

Behin tratu txarrak ohikoak direnean, bikote-harremana uztea zailagoa da dirudiena baino. Fenomeno polemikoa da, eta

faktore askok baldintzatzen dute. Baliabide ekonomikoaren falta, errepresaliak jasotzeko beldurra eta familia-unitatea mantentzea dira harreman horiek etetea eragozten duten funtsezko hiru trabak, Bizkaian 2005-2009 artean egindako Violencia contra las mujeres en el ámbito doméstico ikerkuntzaren ondorioen arabera. “Motibo emozionalaz aparte,

dagokienez, eta baliabide eskuragarri buruzko informazio faltak, zerikusia dute emakumeek indarkeriazko harremanetan irautearekin. “Ez dago horrenbesteko baliabiderik, eta ez da erraza haiek eskuratzea gainera, askotan eskakizunak gehiegizkoak direlako eta emakume guztiak ez dituztelako eskura izaten”, dio Vázquez-ek.

GRÁFICO 48. EVOLUCIÓN DEL CONOCIMIENTO RESPECTO A QUÉ HACER O DÓNDE ACUDIR EN SITUACIONES DE VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES EN EL ÁMBITO DOMÉSTICO SEGÚN GRUPOS DE MUJERES. PORCENTAJES, 2005-2009.



benetako arrazoi ekonomiko dago atzetik, eta, horrenbestez, emakumeek zailtasun handiak dituzte indarkeriatik ateratzeko” dio Norma Vázquez Sortzen Consultoría enpresako psikologo eta terapeutak.

Bestalde, benetako aukeragabeziak, ostatuari eta lanari

BALIABIDEEI BURUZKO EZAGUTZA

Lehen aipatu den ikerkuntzaren daturik garrantzitsuenetako bat da 2005ean galdeketa egin zitzaizen emakumeen % 40,3ak ez zekiela zer egin edo nora jo etxeko indarkeriarik jasaten bazuen. Erakundeen eta hiritarren arteko zulo hori % 21,5eraino jaitsi zen 2009an, koadroan ikus dezakegun bezala; beraz, ondoriozta daiteke hiritarrek ezagutza handiagoa dutela indarkeria matxistari aurka egiteko erakundeek dituzten baliabideen gainean.

PROGRAMA BEREZIAK

Diseinuari ikuspegi on bat ematea funtsezkoa da indarkeria matxistaren aurkako baliabideak



Baliabide ekonomikoaren falta, errepresaliak jasotzeko beldurra eta familia-unitatea mantentzea dira tratu txarreko harreman horiek etetea eragozten duten funtsezko hiru trabak

erabilgarriak izan daitezzen biktimentzat. “ Baliabideak gizarte-zerbitzuen mende daude, guztiz, eta haietan ohikoena da onuradunen eta bete beharreko eskakizunen hizkuntza erabiltzea. Erakundeek benetan bermatuko balute emakumeek indarkeriarik, torturarik eta tratu txarrik gabeko bizitza askea izateko duten eskubidea, ez lukete eskakizunik exijitu beharko, baizik eta beharrak diagnostikatu eta haien ondorioz jardun”, azpimarratu du Naredok.

Ildo horretatik, Bizkaiko Foru Aldundiaren Emakumearen

Zerbitzuan behar jakin batzuetatik abiatuta diseinatu diren hiru programekin ari dira lanean; merezi du haiek aipatzea.

1. Etxeko eremuan emakumeen aurkako indarkerian espezializatutako esku-hartze familiarren programa

Programa horrek laguntza psikosoziala ematen die indarkeriaren biktima diren emakumeei, tratu txarren emalea eta adingabeak bizi diren etxebizitza berean jarraitzea erabakitzen dutenei, alegia. Programari esker, krisi-egoerei aurre egin diezaiekete, eta programako hartzaileei gaitasunak eta baliabideak errazten zaizkie, irtenbiderik egokiena lortze aldera. Esku-hartzeak hamabi hileko iraupena du, gutxi gorabehera, eta luza daiteke, kasu bakoitzaren ezaugarrien eta bilakaeraren arabera.

Zerbitzuaren helburua emakumeek erasotzaileekiko deslotura emozionala lor dezatela

da, eta haiek gabe bizitzen ikas dezatela. Indarkeria-zikloaren barruan oso etapa arriskutsua dago biktimentzat, eztei-bidaia izenekoa; bertan, emakumeek bigarren aukera bat ematen diete erasotzaileei, irteera-ibilbideak utziz eta indarkeria-ziklora itzuliz. Programa horrek berritasun bat dauka; hau da, emakumeei ez zaiela bakarrik uzten beren burua salbu ikusten duten une horretan. Laguntza-figura hori presente dago etengabe, eta jarraipen indibidualizatua egiten zaie emakumeei, indarkeria-zikloa berriro eman eta laguntza premiazkoa izaten den arte.

2. Gizarte laguntzako agenteen sarea (Tartekari Sarea)

Proiektu horren funtsa gizarte-laguntzako agenteen sarea eratzea da; haiek borondatez betetzen dituzte informazio eta orientazio-lanak, eta bikotekidearen edo bikotekide ohiaren tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei

laguntzen diete. Agentea da biktimen, gizarte-erakundeen eta erakundeek eskaintzen dituzten baliabide espezializatuen arteko lotura. Foru Aldundiko teknikariek antzeman zuten “biktima moduan laguntza eskatzen duten

den familietan egiaztatu zen seme-alaben % 100ak amaren aurkako indarkeria-jokaerak zituela. Horregatik, 2008ko urte amaieraz geroztik programa

batek gurasoei eraso egiten dieten nerabeen indarkeria lantzen du, eta arazo horren azpitik dagoen genero-ikuspegia osorik begiesten du.

Indarkeria-zikloaren barruan oso etapa arriskutsua dago biktimentzat, eztei-bidaiak izenokoa; bertan, emakumeek bigarren aukera bat ematen diete erasotzaileei, irteera-ibilbideak utziz eta indarkeria-ziklora itzuliz

emakumeak ez daudela berdin ordezkaturik baliabide horiek erabiltzean”. Programa horren bitartez liderrak bilatzen dira, eta prestakuntza ematen zaie beren ingurunean, auzoan edo elkarteetan, Foru Aldundiarekin lankidetzan aritzeko, borondatez. Haien zeregina kanal bat izatea da, eta indarkeria matxista jasan dezaketen biktimei eskura dauden baliabideak erraztea, irteera-ibilbideekin hasteko. 2014ko otsailean talde berria eratuko da. Baten batek interesa badu, harremanetan jar daiteke 94 406 69 00 telefonoan.

3. Gurasoen aurkako seme-alaben indarkerian espezializatutako esku-hartzetako familiarreko programa

Programa hori gurasoen aurkako indarkeria (adingabeek aitei/amei edo haien ordezkariak duten pertsonen egindakoa) gauzatzen duten 10 eta 21 urte bitarteko seme/alabak dituzten familiei dago zuzenduta. Duela urte batzuk aparteko garrantzia hartu du arazo horrek. Nerabe erasotzailea bi gurasoekin bizi

FORU ALDUNDIAREN EMAKUMEEN ZERBITZUAREN BALIABIDEAK, INDARKERIA JASATEN DUTEN ETA BEREN KARGURA SEME-ALABAK DITUZTEN EMAKUMEEI ZUZENDUTA

Azpimarratu behar da programa eta baliabide horiek eskuratzeko ez dela zertan aurre-salaketarik egin behar, ez eta errolatu edo administrazio-egoera erregularrik egiaztatu behar ere. Baliabideak kategoriatan hauetan biltzen dira:

A. BIZITEGIRAKO BALIABIDEAK

A.1. Biktimak premiaz hartzeko zentroa

A.2. Egonaldi ertaineko edo luzeko zentroak:

- Biktimei arreta osoa emateko zentroa
- Emakume gazteentzako zentroa
- Autonomia-pisuak, guraso bakarreko familientzat
- Prostituzioa uzten duten emakumeentzako zentroa

B. BIZITEGIRAKO EZ DIREN BALIABIDEAK

B.1. Klasikoak:

- Aholkularitza juridikoa
- Arreta psikologikoa

B.2. Beste programa batzuk:

- Etxeko eremuan emakumeen aurkako indarkerian espezializatutako esku-hartzetako programa
- Gurasoen aurkako seme-alaben indarkerian esku-hartzetako familiarreko programa
- Familiaren topaguneak
- Gizarte-laguntzako agenteen sarea

C. INFORMAZIO-BALIABIDEAK

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren web orrian oso erabilgarria den tresna bat dago eskura: Baliabideen Atlasa. Tresna grafiko horrek mapen bilduma bat biltzen du, eta grafikoki islatzen du zerbitzu-sareari eta genero-indarkeriako egoerei aurre egiteko eskura dauden baliabideei buruzko informazioa, baita erakunde publikoek hartutako berdintasun-tresnei buruzkoa ere: planak, programak eta protokoloak.



Indarkeri matxista jasaten duten emakumeek, indarkeria egoeratik irteteko baliabide nahikoak dituztela, uste duzu?



Nire esperientzia aintzat hartuta esan dezaket tratu txarrak jaso dituzten emakumeek sentitu dezaketean txarrena beldurra dela. Horregatik, emakumeek erakundeen, familiaren eta bizilagunen babesa dutela ikustea oso garrantzitsua da. Niri bizilagunek eta erakundeek ez zidaten nahikoa lagundu. Ez nintzen batere babestuta sentitu. Dena den, uste dut gaur egun emakumeok dauzkagun baliabideak askoz hobeak direla.

Belén Leturiaga.

Laguntza bai jasotzen dute baina beraien bizitza ordutik aurrera ez da berdiña izaten. Ezin dute bizitza normala eraman, ez behintzat ordura arte eraman duten modukoak; euren etxean lasaitasunez bizitzeko aukera, adibidez, galdu egiten dute. Urruntze aginduak egon arren, kasu askotan ez dute ezertarako balio, nahiz eta poliziz betetako herrialde batean bizi.

Amaiur Montero, 31 urte.



Nire ustez, egoera txarrean dauden herritarrek ez daukate, oro har, baliabide nahikoa; eta hori askoz larriagoa da genero indarkeriaren biktimak diren emakumeen kasuan. Indarkeria matxista ez da fisikoa bakarrik, psikologikoa, sexuala eta ekonomikoa ere bada. Beraz, nire ustez ezinbestekoa da biktimen eskura laguntza gehiago eta hobeak jartzea. Gizarte-abileziak galduta dauzkaten emakume horiek indarkeria-egoera gainditzeko eta bizi duten infernutik ongi irteteko gai izan daitezzen, ezinbestekoa da haien eskura mekanismo eta tresna gehiago jartzea, prozesu osoan.

Eider Senarriaga, 31 urte.

Egia da azkenaldian emakumearen kontrako biolentziaren inguruan aurrerapausoak eman direla baina oraindik lan handia dago egiteko. Gero eta zalaketa gehiago jartzen dira baina zalaketak jarri dituzten emakume asko zauritu edo hil egin dituzte. Telebistan ia egunero agertzen da gai honi buruzko notiziren bat. Horregatik, nire ustez, emakumeak babesteko neurri handiagoak hartu beharko lirateke.

Ziortza Etxebarrieta, 36 urte.



Uste dut ezetz; aho betean: ez. Nahiko zaila da egoerari aurre egitea, psikologikoki ez baitzara gai. Are gutxiago horri gehitzen badizkiogu arazo ekonomikoa eta lan-merkatuan sartzeko premia. Gai batzuk hobetu diren arren (arreta psikologiko, ekonomiko eta juridikorako doako telefonoak daude, adibidez), eguneroko albisteetan ikusten da ez dela nahikoa.

Gurutze Rubio, 61 urte.

Beharbada ez dira nahikoa egongo eta, gainera, dauden gutxi horietara heltzeko informazioa ere seguru ez dela nahikoa. Ez dakite nora jo. Telebistan ikusten denaren arabera, lan hori tratu txarrak jaso dituzten emakumeen elkarteek, psikologoek eta abarrek egiten dute, borondate onez, eta ez erakundeek.

Iker Arregi, 37 urte.



Matxismoa unibertsala da nahiz eta herrialde bakoitzean aurpegi ezberdina izan



Ez esan lolokeriarik etorkinen inguruan transmititzen diren estereotipoen gaineko gogoeta egitera gonbidatzen duen kanpaina bat da. Getxon jada ezarri den proiektu hau pertsona talde bat inplikatu eta jendartea pobretzen duten aurreiritziak zalantzan jartzean datza, etorkinei buruzko informatutako ikuspegi positibo eta eraikitzaileak sustatuz. Kanpainen parte hartu duen eragile bakoitzak, jaso dituen ezagutzak beste hamar pertsonarekin partekatuzeko konpromisoa hartu du eta, aldi berean, pertsona horiei ere

antzerako ariketa egitea eskatuko zaie, efektu biderkatzailea sortuz. Gida bat argitaratu da baita ere detektaturiko zurrumurruek desaktibatuzeko argumentu baliabide nagusiekin.

Zurrumuru horietako bat immigrazioak euskal gizartearen matxismoa handitu duela da. Horregatik “zozoak beleari ipurbeltz” da zurrumurruek aurkako gidan gomendatzen duten lehen argumentua. “Etorkinak haien jatorrizko herrialdeetatik emakumeen aurkako indarkeria inportatzen ari direla esatea faltsua da, ez baita immigrazioarekin iritsi den arazo bat. “Matxismoa

unibertsala da nahiz eta herrialde bakoitzean aurpegi ezberdina izan. Arazoa da errazagoa zaigula indarkeria matxista gisa hartzea beste herrialde batzuetan gertatzen dena, gure herrialdean gertatzen dena baino” dio June Fernandezek, feminista eta SOS Arrazismoko militanteak.

“Oso harroputza izango litzateke bizi gareneko euskal jendarte honetako continuum matxista eredu gisa jartzea” azpimarratzen du Xabier Aierdik, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta soziologoak. Eta hori da gidan aurkezten den bigarren argumentua hain zuzen ere: Nire aita-amaginarrebak (nire anai-

arrebetako bat, nire lagunak...) bai direla matxistak, zeinen zaila den esaten dena egitea! Arantza lurrek, kanpaina honetan parte hartu duenak, sendotasunez laburtzen du: "Ezin diegu besteei erakutsi guk ikasi ez duguna".

ETORKINAK ETA MASKULINITATE BERRIAK

Emakume etorkinen gainordezkaritza bat ematen da indarkeria sexistaren biktimen artean. Izan ere, eraildako emakume atzerritarren zenbatekoa espainolena baino bost aldiz handiagoa da. Hala ere, haria jostorratza baino luzeago erabili behar da zifra hori aztertzean. "Biolentzia matxistaren biktima den emakume atzerritarren eta bikote immigrante erasotzailearen arteko lotura arriskutsua da, emakume horien bikoteak gehienetan gizon espainolak baitira" azpimarratzen du Jeanne Rolandek, Biltzen Euskal Integrazio eta Kultura-arteko Elkarbizitza Zerbitzuko Teknikariak. "Gainera, baldintzatzaileak daude, besteak beste, immigrazio legea. Horren eraginez emakume immigranteek ez daukate bertako emakumeen eskubide berdinak eta, hori dela eta, biolentzia matxistaren aurrean zaurgarriagoa den kolektibo bat da" salatzen du.

Hala ere, estatistikek erakusten duten bezala, errealitatea emakume etorkinen kolektiboak indarkeria matxista sufritzeko arrisku handiagoa daukala izan arren, ez dugu ahaztu behar "bere burua defenditzeko eta bere eskubideen kontzientzia handiagoa hartzeko antolatzen ari den kolektiboa dela" ere, Rolanden esanetan..

Nolanahi ere, pertsonak ez dira matxista jaiotzen, egin egiten dira, bizi diren testuinguru kultural,

sozial eta politikoaren arabera. Gizonezko guztiak, etorkinak izan edo ez, kultura patriarkal batean gizarteratu dira eta emakumeen gaineko dominaziorako estrategia ezberdinak erabiltzen dituzte. "Gizon etorkin bat ez da euskaldun bat baino erasotzaileagoa, baizik eta haietako bakoitza jazarpen edo eraso hori leku batean edo bestean gauzatzeko legitimatuta sentitzen da", azaldu du Fernandezek.

Gainera, etorkin batzuen kasuan, horrenbeste urtez harrerako herrialdeetako kulturetan gizarteratzen igaro ondoren, ez litzateke logikoa izango haien jatorrizko herrialdeetan jasotako hezkuntzan oinarrituta jokatzeko dutela esatea. "Gizon etorkinak oso kaltetuta sentitzen dira erasotzaileagoak eta matxistagoak direnaren irudi negatibo horrekin eta hori zuzentzeko lanean ari dira", azaldu du Rolandek. Hain zuzen ere, haietako askok maskulinitasun berriei buruzko hausnarketa-prozesuetan parte hartzen dute, Gizonuz bezalako organizazioen bitartez. "Berdintasunaren arloan, asko dago eraikitzeko eta gakoa da elkarrekin egin ahal izatea, etorkinek eta autoktonoek, batzuk bertutetsuak direla eta besteak ez direla pentsatu gabe", argitu du Aierdik.

Kanpaina honen helburua euskal jendarteak immigrazioaren gainean daukan aurreiritziak agirian jartzen dituen zirimiri bat sortzea da. "Errealitatea estereotipoaren ikuspuntutik aztertzen badugu ez dugu aurrera egingo, abiapuntua ez baita egiazkoa" Zurrumurruek ez dizute errealitatea ezagutzen uzten", ohartarazi du lurrek. "Indarkeria matxistaren arazoa emakume eta gizon etorkinei bakarrik dagokiela

Gizonezko guztiak, etorkinak izan edo ez, kultura patriarkal batean gizarteratu dira eta emakumeen gaineko dominaziorako estrategia ezberdinak erabiltzen dituzte

uste badugu, ez dugu izurri hori gure gizarretik desagerrarazterik lortuko", gaineratu du Rolandek.

Kanpainaren puntu indartsuena da "kontua da isiltasunaren kiribilarekin amaitzea, izan ere, gure ingurunearekin ez haserretze aldera, isiltzeko joera daukagu", zehaztu du Aierdik. Horretarako, metodologia adeitsua eta ez-oldarkorra erabiltzea gomendatzen dute, estereotipoa errespetutik eta, batez ere, frustrazio ezetik desmuntatuz. "Aurre-iritziak apurtzea ez da lan erraza, oso ondo etortzen baitzaizkigu errealitatea sinplifikatzeko", ziurtatu du.

Kontua da inguru hurbilenetan zurrumurruek jaurtitzen dituzten pertsonen kontzientzietan itzal txikiak ezartzea. "Euskaldun guztiok terroristak garela esanez, orokortzea gustatzen ez zaigun bezalaxe, ez baita egia, ez guke esan behar latinamerikar guztiak kultura supermatxista daukatenik", dio Fernandezek, alderaketa eginez. Ziurtasun horiek zalantza jartzen saiatu behar dugu, irakurketa sinplistik alde batera utzi eta, era honetako adibideekin, gauzak ez direla hain sinpleak aldarrikatu. "Hobe da zuzenean ez sartzea, norbaitek dioena gezurra dela argudiatuz. Interesgarriagoa da non irakurri duzu hori, zeinek kontatu dizu edo zelan dakizu bezalako galderak egitea, entzuten dauden pertsonen artean zalantza sortzeko. Funtzionatzen du eta ez zara frustratzen", bermatu du lurrek.

Esnealdia jada ez da emakumeen kontua bakarrik

Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak sinatutako hitzarmen baten arabera, funtzionarioek, gizonetzko izan zein emakumezko izan, edoskitzaroko baimena eskatzeko eskubidea izango dute. Interpretazio hori Langileen Estatutuan sartzeko modukoa denez, sektore pribatuko gizonetzko langileek ere eskubide berbera izango lukete.

Hitzarmen hori aurrerapauso handia da, orain arte gizonetzkoek ama ere landuna bazen bakarrik eska baitzezaketen baimena. Ondorioz, aitak edo gurasoetakoren batek baimena lortzeko, ezinbestekoa zen

amak baimen hori erregimen juridikoan aintzatetsia edukitzea eta hari lagatzea.

Arlo horretan bidea urratu duen epaietako bat Europako Batasuneko Justizia Auzitegiak 2010eko irailaren 30ean emandakoa da. Epai horren arabera, “edoskitzaroko baimena esnealdi biologikotik lokabetu da”, eta “zaintza-aldi huts eta familia eta lana uztartzeko neurri” bihurtu da.

Aurrekaria ezarri duen beste epaietako bat Konstituzio Auzitegiak 2011ko maiatzaren 19an emandakoa da. Epai horrek aurrekoaren argudioak berresten ditu eta honako hau dio: “Langileen Estatutuak aitak, besteren konturako langile

gisa, edoskitzaroko baimenaz gozatzeko daukan eskubidea babesten du, betiere emazteak jarduera profesionalen bat badauka, jarduera hori Gizarte Segurantzako Erregimenen batean nahitaez sartzekoa ez bada ere”.

Azken aldaketa, ama landuna ez izanda ere aitak baimena eskatu ahal izatea, alegia, orain planteatu da. Hala, testuak honako hau dio: “jurisprudentziak azpimarratzen badu ere amak lanbidean gora egiteko eskubidea babestu behar dela, erkidegoko jurisprudentziak ez du lan-arloko berdintasuna bakarrik kontuan hartzen, berdintasuna oro har baikik”.



Alemaniak generoaren hirugarren aukera ofizialtzen du

Azaroaren hasieratik aurrera, guraso alemaniarrek hiru aukera izango dituzte beren seme-alaben jaiotze-ziurtagiriko generoaren laukia betetzerakoan: emakumezkoa, gizonezkoa eta hutsik. Horrela, Alemania generoaren hirugarren aukera ofizialtzen duen Europako lehenengo herrialdea izango da.

Legedia berriak fisikoki bi sexuekin jaiotzen diren haurrei, haur hermafrodita gisa ezagutzen direnei, heldu-arogan gizonezkoen edo emakumezkoen kategorian

egon nahi duten hautatzeko aukera emango die. Hirugarren generoaren edo zehaztugabearen kategoriarean geratzeko aukera ere ematen zaie eta beren bizitzako inongo unetan bi aukera horietako baten aldeko aukera egin beharrik ez izatekoa.

Lege berria gorte konstituzionalek emandako erabaki batean oinarritzen da, zeinak dioen, pertsona batek genero jakin batekoa dela sakonean sentitzen duen bitartean legez nola identifikatzen den aukeratzeko eskubidea ere

baduela. Alabaina, araudiak aukera hori hermafrodismo diagnostikoan sartzen diren pertsoneri soilik aitortzen die.



Maite Albiz Emakumeen Dokumentazio-Zentroaren 20. urteurrena

H duela 20 urte, Maite Albiz Emakumeen Dokumentazio Zentroak bere ateak ireki zituen Bilboko Alde Zaharreko "La Bolsa" Gizarte-Etxean, Bizkaiko Emakumeen Asanbladako lan-talde baten hamaika urteko borondatezko ahaleginari eta Bilboko Udalaren laguntza ekonomikoari esker.

Urte horietan zehar, Emakumeen Dokumentazio-Zentroak emakumeen errealitatea aztertzeko interesa duten pertsona guztientzako topagune bat eratu du. Euskal Herriko Mugimendu Feministaren ideiei eta jardueri buruzko dokumentuzko funtsa

sortu da eta, baita, teoria feministari buruzko eztabaidei eta diziplina akademiko desberdinetan teoria horien garapenari buruzko funts bibliografiko bat ere.

Gainera, Zentroak kontaktusare zabala eratu du emakumeak erakundeekin, elkarte-mundua-rekin eta izaera feminista duten mota guztietako jarduerekin harremanetan jartzeko aukera ahalbidetzen duena.

Zoritzarrez, urtemuga hau kulturarentzako eta zentroaren beraren etorkizunerako ziurgabetasun handiko uneetan iristen da. Horregatik, handik, beren zereginak inoiz baino zentzu handiagoa



duela berresten dute eta nahi duten guztiei ikasten eta eztabaidatzen jarraitzeko aukera eskaintzen diete. Zorionak.

**EMAKUMEEN
DOKUMENTAZIO-ZENTROA**
Pilota, 10 ("La Bolsa" Eraikina)
48005 Bilbo
Tel. 94. 416.23.37
<http://www.emakumeak.org>

Agenda ...

AZAROAK 25, EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO EGUNA

OSTIRALA 15 ETA LARUNBATA 16

Autodefentsa feminista tailerra emakume gazteentzat

Irakaslea: *Maitena Monroy*

Ostirala, 16:00etatik 20:00etara eta larunbata, 10:00etatik 14:00etara;
eta 15:30etatik 19:30etara.

Jabekuntza eskolan (Martikoena, 16)

Izen-emateak Berdintasun Zerbitzuan berdintasuna@getxo.net

edo **94 4660136** telefono zenbakian.

ASTEARTEA 19

Indarkeria matxistak emakume guztiongan du eragina: jokabide jarraibideak

Hizlaria: *Norma Vázquez*, psikologoa eta indarkerian

eta emakumezkoen ahalduntzean aditua

Villamonteko Kultur Etxea, 19:30etan.

OSTEGUNA 28

Genero indarkeriaren aurkako konzentrazioa

Bizkaia zubiko plazan, 19:30etan.

Gizatiar, emakume elkarateak antolatua.

LARUNBATA 30

BELDUR BARIK TOPAKETA 2013 (Marienea, Basauri).

Tailerrak, Ekintza kolektiboa.

Musika eta Sari banaketa

Informazio gehiago www.beldurbarik.org

Berdinsareak antolatua

* Hautzaindegi zerbitzua behar izanez gero, gutxienez bi egun lehenago eskatu behar da.